


Noaqua!!

H A M A B O S K A R I A

2000ko Maiatzaren 5a V.urtea

Usurbil, 89. zenbakia




Andatzan
urteroko zita

Aizpurua



*Zure mahaia ondo
hornitu nahi baduzu
gurean duzu aukera!*

Telesforo Ardoak



Kale Nagusia, 25 Telf. 943 36 12 20

Egin zaitez

Noauako bazkide

Merkeago afaldu nahi baduzu, edo eta erosketak merkeago egin nahi badituzu hona hemen zure aukera

%10eko
beherapena



Aldatz kioldenda
Mahuka
jantzidenda
Pauma Haur
jantziak
Truke jantzidenda
Usurbil optika
denda
Intza ileapaindegia

2.500 pezetatik
gorako otordua
eginez gero
%10eko
deskontua

Antxeta jatetxea
Patri jatetxea
Zumeta jatetxea



TXIMINIA ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan



Zorionak aitona **Miguel!**
Ongi pasa zure urtebetetze-
an eta animo! Maiatzaren
8an 74 urte beteko baditu-
zu ere oraindik gaztea zara
eta. Etxekoan partez.



Zorionak **Mikel!** Maiatzaren
6an bi urte beteko dituzu,
beraz bi muxu etxekoan par-
tez. Eta ea ttia noiz uzten
duzun!



Zorionak **Ibai!** Maiatzaren 10ean
3 urte beteko dituzu. Muxu asko
eta besarkada haundi bat aita,
ama, osaba eta aiton-amonon
partez.



Zorionak hirukote! Maiatza dantzan jarriko
diagu aurten ere. Maiatzaren 8, 12 eta
19an ez zarete libratuko. Mende laurdena
pasako duzue **Ibon** eta **Manuk**, **Karlosek**,
berriz...

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarfe hau erabili dezakete. Ekarki jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: maiatzaren 19an

Ekartzeko azken eguna: maiatzaren 12an

Jaiotzak

**Victoria Izagirre
Iturri**

(2000-04-10)

Olarriondo

**Ane Elexpe
Cabrera**

(2000-04-15)

Kaleberri

**Josebe Blazquez
Tolosa**

(2000-04-16)

Galtzaragaña

EUSKO TRENBIDEAKEN UDABERRIKO AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30
09.00	09.30	09.40*	08.15	08.35	09.00
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30
13.00	13.30	13.40*	11.45	12.05	12.30
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00

* Orioraino ** Aiaraino

* Oriotik ** Aiatik

ASTEBURUTAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.45	17.05	17.30
18.30	18.55	18.15	17.45	18.05	18.30
19.30	19.55	19.15	18.45	19.05	19.30
20.30	20.55	20.15	19.45	20.05	20.30
21.30	21.55	21.15	20.45	21.05	21.30
22.30	22.55	23.15	21.45	22.05	22.30

XABIER EDARITEGIA

Etor zaitetz,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak

- X Idiazabal gazta
- X Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66

WITZINGAN

HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater
kombinatua, pintxo beroak...

Tel. 943 36 02 17

Euskal presoak etxera!



Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO
Olindegiak Gaztegiak



Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitalde
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.topagunea.com/noaua/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloca Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieita, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitx Udabe eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga eta Ander Perez

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketak

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:

Irisasi mendia Andatza egun batean

Zer irizten?

Hesteetako gaixotasun sustagarria

Idoia Aramburu Leunda

Zergatik niri?

Noizbait guztiok egin diogu galdera hau gure buruari, baita ondoren azaldu nahi dizuedan gaixotasuna sufritzen dutenek ere.

Crohn eta Kolitis Ultzerosoa heste-etako gaixotasun sustagarrien multzoaren barne kokatzen diren bi gaixotasun kroniko dira. Iraupen eta intentsitate aldakorreko bi faseetan garatzen dira; fase aktiboa edo brotea eta fase geldoa edo remisoa. Azken fase honek egunak, hila-beteak edo urteak iraun dezake. Ez dira kutsagarriak, ezta hilgarriak ere, baina oso jasangaitzak dira.

Crhon gaixotasunak ahotik hasi eta uzkia bitartean liseriketa aparatu edozein zatitan kalte egin dezake. Kalte gehien heste mehearen azken muturrean (ileon) eta heste lodian egiten du, ultzerak, estutasunak eta zorne-zorroak eraginez. Beti ere, ehuneko atal guztietan kalte eginez.

Kolitis ultzerosoa aldiz, heste lodiko barne azalerako mukosa hantu egiten du. Ondorioz, tamainu desberdineko ultzerak sortzen dira. Kolitisak ez du inoiz heste mehea kalteztzen eta uzkia inoiz edo behin.

Bi gaixotasun hauen zergatia ezezaguna da, hala ere, alde aurretiko joera genetiko bat dagoela jakin da eta seguruenik infekzio faktore bat.

Orokorrean, gazte jendearengan du eraginik haundiena (15-30 urte) neska-mutilen artean ezberdintasunik egin gabe. Gaixotasun hauen eraginak garapen industrial eta herrialdeetako ekonomia mailaren haunditzearekin zerikusia du.

Sintoma ohikoenak hesteetan gertatzen dira kokapena eta konpli-

kazioen arabera: ohikoena berakoenena da, odola edo mukiarekin edo hauek gabe; aldika idorrieriak; artekak eta uzkiaren ultzerak; nekea, apetitu falta, sukarra, pisu galera eta sabel haunditzea. Zeinuak hesteetatik kanpo ere jasan daitezke: begietako hantura, juntura edo artikulazioetako mina, harriak giltzurruan edo besikulan, osteoporosia, anemia...

Gaixotasunaren zergatiaren ezjakintasunak eritasuna sendatzea galeratzen du, baina broteen iraupena eta gogortasuna tratamenduarekin murriztu daitezke. Osagai nagusienak antiinflamatorioak eta kortikodeak dira.

Malagan, estatu espainiarreko Crhon eta kolitis Ultzerosoaaren Gaixoen lehenengo elkarteak lehen pausoak eman zituenetik eskualde bakoitzean elkarlaguntzarako hainbat talde sortzen joan dira, gaixoen arteko hartueman pertsonalagoa lortuz. A.C.C.U.-Gipuzkoa 1994an sortu zen H.G.S.ren informazioarako ekintzen antolakuntzan lan eginez.

Era berean, A.C.C.U. Europako Crhon eta Kolitis Ultzerosoaaren Gaixoen Elkartearen Federazioko partaide da, eta gaixo hauen lehen egun europarra elkarlanean antolatzen ari dira. Probintzi bakoitzeko ekintzen antolakuntzan talde probintzialek parte hartzen dute eta Gipuzkoako A.C.C.U.k egun hau ospatzeko Hesteetako Gaixotasun Sustagarriari buruzko hitzaldi bat antolatu du, Donostiako Arantzazu Hospitaleko Liseriketa-zerbitzuko buru den Jose Ignacio Arenas doktorearen eskutik. Hitzaldia maiatzaren 13an izango da arratsaldeko 19.00etan O.N.C.E.ko ekintza aretoan.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Ibai Ondo elkarteko bazkideek herritarrei

Noaualaren bitartez Santueneako Ibai Ondo Elkarteko bazkideok zera jakinarazi nahi dizuegu usurbildar guztioi. Agian, batek baino gehiagok izango du elkarte honetan egin genituen konponketen berri, baita konponketak egitera bultzatu gintuzten arrazoien berri ere.

Hala ere, hitz gutxitan bertan gertatutakoa gogorarazi nahi dizuegu: denbora luze honetan elkartearen gainean bizi den Olatz Iruretagoienarenak elkartearekiko mantendu duen jarrera publikoki salatuta nahi dugu. Bera bizi den etxebizitzatik elkarteko soinuak eta iskanbilak asko entzuten zirela eta kezuka ibili da denbora askoan. Arrazoi horregatik

elkatea salatu eta epaitegira eramatera heldu da. Guzti horregatik insonorizatu behar izan dugu elkatea, eta diru asko kostatu den konponketak egin. Orain, obra guztiak bukatu eta gero, Olatz Iruretagoienak jarrera berdinarekin jarraitzen du, mehatxuak egin ez gainera. "Elkatea itxi arte ez duela atsedea hartuko" esaten du.

Elkarteak irekita egoteko bete behar dituen arau eta lege guztiak betetzen ditu, beraz, bere itxikerian sartuta dagoen pertsona egoskor batengandik horrelako elkarte euskaldun bat ixteko ez dugu inolako arrazoirik ikusten.

Bide batez, eskutitz honen bitartez, bere anai den


Xabier Iruretagoienaren jarrera ere salatuta nahi genuke. Izan ere, bere arreba elkartearekiko zuen jarrera zein zen ikusita, inori ezer esan gabe eta zorraz ordaindu gabe elkatea uztea erabaki baitzuen.

Pertsona honen itxikeriaren aurrean Ibai Ondo elkarteko bazkideak edozer gauza eta mobilizazio egiteko prest gaude. Egoera jasanezina da dagoneneko eta horregatik, pertsona hau publikoki salatzen iritsi gara. Mobilizazio desberdinak egiteko prest gaude eta usurbildar guztioi zuen laguntza eskatu nahi dizuegu. Aldez aurretik eskerririk asko eta zuen laguntza jasoko dugulakoan...

Ibai Ondo elkarteko bazkideak



Aginaga sagardotegia taldeak Kontxako hondartzako kopa txapelketako finala jokatu du datorren maiatzaren 7an. Finalerdietan Basmo taldeari 6-2 irabazi ondoren azken partidurako txartela lortu zuten pasa den maiatzaren 1ean. Eguerdiko 11.45etan hasita Chesa taldearen aurka jokatuko dute.


 Txirikitutik

PATRI JATETXEA
Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tel.: 943 36 27 25

Iturgintza - Gasa - Berokuntza



J. Orbegozo



Bizkarra 1, 1. esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



ESTRELLA
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Zubizurruna, 10
TEL. 943 37 18 07 - Fax.: 943 37 63 41

TXOKOALDE

Ohitura zahar bati eutsiz

Udaberriarekin batera datorkigu Aste Santua, aurtan beranduxeago bada ere. Aste honetan prozesioak edo gurutzebideak nagusi izaten dira nonahi. Usurbilen, berriz, ohitura hori aspaldi galdu zen.

Gure auzoan, egun erlijioso hauetan, ez bereziki Aste Santukoa, baina bai jatorri erlijiosoa duen beste ohitura bat mantentzen dela jabetu naiz: santuen irudiak, Santa Teresita eta Karmengo Ama Birjina batetik eta San Antonio bestetik, etxez etxe pasatzea.

Betidantik ezagutu dugun ohitura hau, bere jatorrian parrokiako kofradeek jarri omen zuten martxan. Zenbait santuren irudiak egurrezko kutxa batean

sartu eta etxez etxe pasatzen zituzten, etxe bakoitzean gau pare bat igaro eta eltxetxo moduko batean diru laguntza jasotzeko asmoz.

Santu bakoitzak jarraitzen duen ibilbidea finkatuta dago aldez aurretik. Etxe bakoitzekoak badaki gero nori pasa behar dion kutxa, normalean aldamean bizi denari. Urteen poderioz, tartean jendea hil delako edo auzotik kanpora bizitzera joan delako, ibilbide jakin honetan hutsuneak sortzen dira eta katea berritu beharrean izaten da. Orduan, gerta daiteke lehenago aldamenara eramaten zenuena, agian urrutirago eraman beharrean aurkitzen zarela. Honek, batez ere zenbait

adinetan, nahiz eta kutxak oso astunak ez izan, nahiko lan suposatzen du.

Ohiturari jarraituz, biltzen den diru kopurua elizarentzako izaten da.

Duela hiru aste Santa Teresita eta Karmengo Ama Birjinaren irudiak zituen kutxa gure etxean egon zelako bururatu zait kontu hau. Gure etxean egun pare bat egin ondoren, gure auzokideari pasa genion kutxa eta orain San Antonio noiz iritsiko zain gaude, hor nonbait ibiliko da.

Hark makina txanpon aginduta dauka, zerbait galtzen dugunean berarekin gogoratzen baikara beti.

Iñaki Labaka



KALEBERRI

Nahasmena

Udaberria dela eta ez da harritzekoa eguraldi aproposa aprobetxatuz herria girotzea. Usurbilen, behintzat, ez dut uste aspertzeko unerik izango denik.

Apirileko azken asteburuan izan da nahiko buruhauste ekin-



tza guztiak bateratzen. Egia esan, asteburu hori berezia zen, egunkari batek zioen moduan, eztiak Usurbil gozatu baitzuen larunbatean. Bezperan, bideo-ikuskizuna ikusi ahal izan genuen gozo-giroan sartzen hasteko.

Horrela, larunbat goizeko azoka berezi horrek lekua eta denbora eskatzen zuenez, duela hiru aste ziren frontoian hasi zen areto futboleko antolatzailak (U.G.A), jo eta ke ibili dira partiden ordutegiak jarri, aldatu, berriz ere beste tarte bat bilatu, azkenean kostata larunbat arratsaldean hasi eta goizeko hirurak bitartean joka-

tzeko. Beti ere, goizeko Erle-goizaren hondakinak garbitzen zituen udaleko langile finaren oniritzia jaso ondoren.

Horregatik, makina bat kolpe hartu zituzten frontoian zintzilikatutako erleek, eta zer esanik ez frontoia hain ondo dotoretzen zuen muralak. Izan ere, hankao-ker gehiegi dago hortik zehar.

Ez pentsa, ordea, hortan geratzen denik Udaberriko agenda: umeen arteko herri mailako pilota txapelketak hasiko dira, Hernani etsai dugularik; frontoi-agendarako ekintza gehiago.

Ez ahaztu, gainera, **Sagardo...**

Jokin Zubiaur



KALEZAR

Maiatza aurrez aurre

Pazko jaiak joan ziren eta maiatza dugu aurrez aurre. Usurbildar gehienontzat, hau hilabete berezia izaten da: bateko Andatza eguna, lehenengo igandean, gero Herri Urrats eta azkenik urte guztiko egunik garrantzitsu eta jendetsuena izaten den Sagardo eguna, maiatzaren 21ean.

Behin hilabete hau pasa ondoren, San Juanetan pentsatzen hasi beharko dugu. Aurten festa handiak eta bereziak izango diren "xurumurrua" entzun dut.

Gure auzokide izan zen Joxe Mari Arantzazistroke *Arrantzale-*

ri ere omenaldi moduko bat egiteko asmoa dugu.

Bestalde, festei nolabaiteko laguntza eman beharko diogu eta honetarako, aspaldidanik dabil-tza antolatzailleak erri-fak saltzen.

Beraz, badakizue, Saizarren lau pertsonentzat

Joseba Pellejero



afaria lortu nahi izanez gero, errifa batzuk erosi besterik ez duzue, gainera gure auzoko jaien alde egingo duzue.



ATXEGALDE

Behera begira

Oporrak bukatu dira. Hauxe da oraingo esaldia. Orain beste gauza batzuei eusteko garaia da. Batzuk Andatza eguna eta Sagardo eguna dute buruan, beste askok, berriz, badugu besterik. Azterketen aldapa igotzen hasi behar orain, aldapa gogorra gutxitan igoz gero. Baina serio antzera hasi aurretik, geldialdi bat egingo dut aldapan. Lasai exeri eta behera begira jartzeko.

Oporren aitzakiaz, behealde-ra joan naiz ni, penintsularen azken muturrera. Han eguzkiak lurra urtean 300 egunetan jipoi-tzen du, gupidarik gabe

gainera. Lehorra da ingurunea, nekagarri izatera iristen den lehortasunaz ari naiz. Bide bazterrean eguzkitan etzanda baleude bezala agertzen dira zuhaitzak, edo garai batean zuhaitz izandakoak, hobe esanda. Bista ere nekatu eta tristetu egiten da ingurune zigortuari begira.

Bere lehorrean ederra ere bada, gure herriarekiko desberdina, baina ederra.

Tristurak harrapatu zaituen momentuan kostatzen inguruko paraje zoragarriekin topo egin eta dena ahazten zaizu. Bide lehorretan autoek altxatzen duten hautsaren artean artzain

Amagoia Mujika



bat topatzea erraza da. Eguzkiak belztutako aurpegi nekatua du, baina badu irrifar egiteko indarririk eta gogorik. Berak ere ez omen daki ardiek zer jaten duten, nola dirauten bizirik. Lurrak falta duen freskotasuna bertakoek soberan dute. Hori da lasaitasuna, hori da presarik eza, hori da grazia, guk ere badugu zer ikasirik. Gaur ez bada, bihar egingo dugu, zer arraiol!

Euskal Herrira bueltan, paraje fresko eta ederrekin topo egiten duzu bete-betean. Mota guztietako berdeak aurki ditzazkezun lurralde hau aberatsa da, bai horixe.

SANTUENEA

Pako Agudo



Ibiltari ugari azken asteetan

Udaberriari pattal xamar ekin bagenion ere, maiatzaren etorrerak eguraldia zerbait alaitu duela dirudi. Eguzkia zeru alde horretan nagusitzen hasi da, eta berotasuna auzoko txokoetaraino iritsi da azken aste honetan.

Gure auzoko bideek nabaritu dute horren eragina. Urtean zehar Zubietako buelta egiten edo Txokoaldeko bidean jende asko ibiltzen dela gauza jakina da, baina urte sasoi honetan ibiltariak asko ugaritzen dira. Hondartzara joateko itxura gorde beharra dagoelako batzuk, eguraldi ona aprobe-txatuz ibiltzea mesedegarri zaielako beste batzuk... jende

ugari

pasatzen da gure auzotik. Bizikletak, ibiltariak, kotxeak... ez da giro izaten gure zubi horretan.

Kontu xelebreak ere gertatu izan dira bertan. Aurreko astean, adibidez, Zubietara joateko bidea itxita egon zen momentu luze batez. Izan ere Urteaga baseritik zetorren kamioi bat bide nagusira irtetzerakoan ez gora eta ez behera bide erdi-erdian gelditu zen. Oinezkoak nolabait pasatzen ziren, bizikleta eta motoak ere bai, baina kotxeek beste bide bat hartu behar izan zuten.

Izan ere bide estu horretan edozer gauza gerta liteke. Bi

kotxe gurutzatzen direnean ez da leku askorik egoten biak pasatzeko. Eta, noski bizikletak, motoak eta oinezkoak tartean direnean kontu haundiz ibili beharreko bidea bihurtzen da Santueneatik Zubietara doan bidea.

Bukatzeke ezin ahaztu gure gainean dugun mendia. Datoren maiatzaren 7an izango da Andatza eguna. Goizean goizetik jende asko pasa ohi da gure auzo honetatik. Batzuk Urdaigarako bidea hartzen dute, besteek bide laburragoa egin asmoz Santueneatik Puela zaharrera ateratzen dira. Ea ba eguraldi ona egiten duen eta jende ugari gerturatzen den

URDAIAGA

Kutsadura kontuak

Alazne Begiristain



Auzoan jarri dizkiguten antenak, antiestetikoak izateaz gain, ez dakit zergatik baina bietako batek gasolina edo antzeko zerbait isurtzen du. Alboan duen bidoiak tapoia kendua du eta, handik, gasolina edo dena delakozko erreka bat dator aldapan behera. Erreka zabal samarra, gainera.

Badirudi, lurrak hau xurgatzeko edo, zulo bat egina dagoela, baina honek zuloan lakutxo bat sortzea besterik ez du ekarri. Oso arriskutsua gerta daitekeen lakutxo bat, sua horra iritsiz gero, ez baita giro izango inguruetan.

Nik ez dakit zein arrazoi dela eta gertatzen den hau, ez dakit norbaitek honen azalpenik edo errurik ba ote duen, baina argi dago hau ezin dela honela utzi eta irtenbide bat bilatu behar dela lehenbailehen.

Eta kutsadura kontuak alde batera utziz, Andatza eguna gai-

nean dugula gogorarazten dizuet. Ea udaberriko eguraldi eguzkitsu batek lagundu eta animatzen zareten.



AGINAGA

Hemengo Aste Santua

Badirudi jendea oportetara joateko gogoz izan dela gure herrian, benetan hutsa egon baita egun hauetan.

Herria zaintzen geratu behar izan dugunok, ederki nabarmendu dugu jendea mailetak hartuta Salou edo Pirineotara joan dela, besteak beste. Hala ere, geratu direnak elizara joan direla eta, norbait ikus zitekeen kolean. Eta edadetuak, ezin gutxiago izan eta, nola ez! Benidorm aldera joan zaizkigu eguzkia hartzera eta...

Jende faltan, Aberri egunean Udalak izandako ekintza txalagarriaren ondorioz, herria ikurrin eta banderaz beteta ikusi ahal

izan dugu, etxe bat bera ere ez zelarik ikusten ikurrinik gabe.

Uda datorrela eta, hemengo baserritarrak lur sailak prestatzen hasiak dira piperra aldatzeko asmoz. Beraz, aurten ere nahi duenak badu Aginagan piper biltzen lana, hasi gerrialdeak berotzen...

Azkenik, esan behar Aginagako frontoi aldean hasia dela giroa berotzen eta gero eta jende gehiago ikusten dela palaz edo eskuz entrenatzen. San Praixkuetako txapelketarako prestatzen ariko dira. Dagoeneko gazteak festak antolatzen hasi dira eta astean behin bilerak egiten dituzte.

Iratxe Begiristain



Beraz, Aginagako biztanleei dei egingo zaie, nahi duenak bilera hauetara azaldu eta bere laguntza eta ideiak eman ditzan.



ZUBIETA

Elkarteen batzar nagusia

Pasa den apirilaren 15ean ospatu zuen Zubieta Pilota Elkartek urteroko Batzar Nagusia. Bertan,

1999ko balantzea egitearekin batera, urte honetako egitasmoak aurkeztu ziren. Elkartek hainbat txapelketatan eta herri-ekitalditan hartu du parte eta, horiei erreparatuz gero, erakutsi du bizitasunez lanean aritzeko gai dela. Hobetu beharra ere nabarmendu zen zenbait arlotan, bereziki, propagandan, kirol emaitzetan eta azpiegituran. Hiru erronka planteatu ziren etorkizunari begira: kirol prestakuntza hobe-

tzea, lokalen bat lortzea eta bazkideen kopurua handitzea. Bazkide helduen urteko kuota 6.000 pezetatara igotzea erabaki zen. Erronka horiei aurre egiteko Zuzendaritza-Batzorde berritua honako kideek osatzen dute: Mikel Bengoetxea (lehendakaria), Imanol Aizpurua, Antonio Alkaide, Jexux Arrillaga eta Joseba Rezola.

Joko Garbi elkartek, berriz, apirilaren 30ean izan zuen ohiko Batzar Nagusia. Elkartearen jardunbidea aztertu ondoren Zuzendaritza Batzordeko bost kide

Xabier Arregi



aukeratu ziren datozen bi urterarako. Bosteko talde bat aurkeztu zen Jose Antonio Arroio buru zela. Beraz, Jose Antonio izango da lehendakari datozen bi urtetan.



Kultur etxe berria

Udarregi zaharra kultur etxe bihurtzeko proiektu desberdinak udalean daude dagoeneko. Denbora gutxira jakingo da zein proiektu izango den irabazlea, baina horren aurretik bere funtzionamendua, antolaketa, gelen banaketa etab. zehaztu nahi ditu udalak.

Udarregi zaharra kultur etxe bihurtuko dutela gauza jakina da. Duela urtebete eraikina egiteko ideien lehiaketa egin zen, eta irabazle atera zen ideia kontutan hartuz 10 proiektu aurkeztu dira. Hilabete barru jakingo da eraikina nolakoa izango den, baina bien bitartean zenbait gauza lotu nahi ditu udalak.

Bere funtzionamendua, antolaketa, gelen banaketa etab. zehazteko, herriko kultur mugimenduan lanean dabil-tzan talde edo pertsona jaki-

nek kultur etxe honi zein erabilpen eman nahi dien jakin nahi da. Beraien kultur jarduera Kultur-etxearekin lotzeko asmorik ba al duten, bere kudeaketa nolakoa izan behar duen, eta zein behar asetu beharko lituzkeen dira udalak taldeei egin dizkien galderak.

Guzti hau aztertzen hasteko bilera egingo da datorren maiatzaren 8an arratsaldeko zazpitan udal pleno aretoan.



Liburutegian mailegu informatizatua

Usurbilgo udal liburutegian, 1996an hasitako informatizazio prozesuari jarraituz, mailegua ordenadore bitartez egiteari ekingo diote. Horretarako beharrezkoa da bazkideen datuak eguneratzea. Horregatik Liburutegiko Mailegu Zerbitzua erabili nahi duten guztiak berriro ere bazkide egin beharko dute.

Bazkide egiteko eskatzen den baldintza bakarra liburutegitik hartutako libururik etxean ez edukitzea da, liburuak itzultzea.

Bazkidea berriz izateko aukera maiatzaren 8tik aurrera izango da. Ekainetik aurrera bazkide berria izan beharko da mailegu zerbitzua erabiltzeko udal Liburutegian.

Labur-labur

Hilerri berria

Hilerri berria eralkitzeko lanak amaitzean daude. Nitxoak eta panteoiak salgai jarri ditu dagoeneko udalak, baina Arratzain bidean dagoen hilerri berri honen inaugurazioak zertxobait itxaron beharko du oraindik. Izan ere, hilerri berrira pasa aurretik, zaharrea bete gabe dauden nitxoak erabiltzea da udalaren asmoa. Oraindik 30 nitxo inguru daude, eta horiek beteazean emango da hilerri berrirako pausoa.

Udala eta INEM

Azken urteetan INEM eta udalaren artean hitzarmenak egin izan dira langileak kontratatzeko. Laz, kultur eta kirol teknikari bat kontratatu zuten udalak INEM-en bidez, aurren ere proiektu batzuk aztertu dira eta horiek gauzatzeko kontratazioak ere bai. Zumane musika eskola pinta-tzea, Irisasiko ikerketa historiko etnografikoa eta Txokoalde eta Orio bitarteko ibai eta inguruko lurren egoera aztertzeko ingurugiro ikerketak egitea, kirol sustatzea eta kultur teknikaria lortzea eta XVI.ko Usurbilgo untxiolak aztertzea da udalaren asmoa.

Jar ezazu hemen zure publizitatea

Telf. 943 36 03 21



Txakurrei aginduak betetzen ikasteko lekua jarri dute Orbeldin

Orbeldiko zentralak beste itxura bat du orain. Urteetan zehar zaindu gabe egon bada ere, azken hilabeteotan txukuntzen ari dira, bai zentrala bera eta baita ingurua ere. Club Agility Kai-Argikoeak dute honen errua. Izan ere, txakurrak agindutakoa betetzen ikasteko lekua jartzen ari dira. Lanak guztiz amaitu bitartean, erriberako zelai batean dituzte horretarako behar diren aparatua.

Gizonaren lagun haundienak deituak diren txakurrek zeresan haundia eman dute azken urteetan. Hauen erasoak ugaritu ziren unean gizar-tea txakur arriskutsuen aurka altxa zen, eta tirabira bat baino gehiago izan da honen inguruan. Zenbait arrazetako txakurrak bozalak jartzera behartuko dituen legea ere tartean dago dagoeneko.

Hala ere, heziketa on batek txakurren erasoaren arriskua ekidin dezakeela uste duenik ere bada. Horretarako lekua jartzen ari dira Orbeldin. Club Agility Kai-Argi izenarekin, txakurrek agindua betetzen ikasteko eta ondo pasatzeko lekua jarri dute. Jesus Larrañaga bertako kidearen esanetan bi monitore dituzte txakurrei hasierako heziketa eman ahal izateko eta txakurra duen edonor azaldu daiteke bertara. "Txakurrarekin etortzea da



jartzen dugun baldintza baka-rra".

Agility izenez ezagutzen da kirol hau. Txakurrei oztopo ezberdinak pasatzen erakutsi eta aginduak betetzen ikastea da beraien helburua. Hurrengo pauso bat ere eman daiteke: lehiaketara eramatea alegia. Larrañagak esan zigunez beraiak erakutsitako txakurrak dituzte eta behin baino gehiagotan izan dira lehiaketa hauetan. Txakurrak emandako agindua betetzen irakastea ez omen da erraza, "baina erakusten saiatuz gero, jardunaren poderioz txakurrak esandakoa egitea lortzen da. Txakur egoskorrak badaude, eta hauekin zerbait lortzea ia ezinezkoa izango dela iruditzen zaigu batzutan, baina segi eta

segi maila ona ematen dute gero".

Orbeldiko zentralean eta honen ondoan jarri duten zelai batean horretarako azpiegitura egokia prestatzen ari dira, baina bien bitartean erriberako zelai batean dituzte txakurrei "eskolak" emateko aparatua. Txakurra duen edonor larubat arratsaldetan eta igande goizetan gerturatu daiteke bertara. Hala ere, datoren maiatzaren 6an erakusketak bat egingo dute herriko fontoian. Eguerdiko 12.00etatik aurrera aginduak betetzen ikasi duten txakurrak proba desberdinak gainditzen ikusteko aukera paregabea izango duzue.

Josu Aranberri

Pinturas
Ion



MAHUKA
Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

ALBORTA
HARATEGIA

Etxeko berezitasunak:

- Oholkiak
- Txorixoak
- Kroketak...

Behoko kalea, 4
Atxegalde ☎ 943 36 57 42

David Asensio: "Zer egiten dut nik hemen? galdetzen nion nire buruari"

Lezama aldean "Usur" deitzen diote, baina herrian David Asensio bezala ezagutzen dugu. 35 zenbakia bizkarrean hartuta "Izarren ligan" debuta egin zuen Athletic-ekin pasa den apirilaren 2an Vicente Calderonen Atletico de Madrilen aurka. Azken hilabetean komunikabide guztiak atzetik izan ditu, baina Noaua! aldizkariak hauek ezin izan dutena lortu du: herriko frontoian baloia hanketan hartuta behin baino gehiagotan ikusi dugun 20 urteko mutila elkarrizketatzea.

2.B mailako taldean ez jokatetik "Izarren ligan" jokatzerara pasa zara. Nola izan da guztia?

Min hartuta egon nintzen denbora dexente. Sendatu eta bigarren taldearekin entrenatu gabe goiko taldearekin entrenatzeko esan zidaten. Hiru egunez entrenatu eta Parisera joan nintzen. Han gola sartu eta fisikoki oso ondo ez banengoen ere Vicente Calderonen jokatu nuen. Oso azkar pasa da guztia.

Partidu hura jokatu zenuen, baina gero ez dugu zure berririk izan.

Orain min hartuta nago. Debutaren ondorengo astean Lezaman entrenatzen ari ginela, Ezquerro eta Sivorirekin tiro batzuk botatzen haserakoan fibra haustura izan nuen. Vicente Calderongo zelaia oso pisutsu zegoen, putzuz beteta, eta ordutik kargatuta nuen hanka.

Beraz, lehen taldearekin entrenatzen ari zinen ezta?

Bai, eta San Mamesen Rayo Vallecanoren aurka deialdian sartzeko esperantza banuen



gainera.

Denbora gutxian komunikabide nahiz herritarren ikusmiran egotera pasa zara.

Ni behintzat hauetatik urrun egoten saiatu naiz. Telebista itzali egiten nuen, ez nuen nire

Parisen lehen taldearekin jokatu, gola sartu eta nire izena handik eta hemendik entzuten hasi zen

burua ikusi nahi. Bestalde, egun horietan dei asko jaso nituen: irratiak, egunkariak, jendea, familiartekoak... Astebetean nire eguneroko bizitza aldatu egin zen. Parisen lehen taldearekin jokatu, gola sartu eta nire izena handik eta hemendik entzuten hasi zen. Nire lehen partidua jokatu eta gero ere eromena izan zen hura; jendeak etengabe deitzen zuen elkarrizketak egiteko...

Noiz jakin zenuen Madrila joateko deialdian zinela?

Larunbatean, partiduen aurreko egunean. Goizeko entrenamenduaren ondoren zerrenda jarri zuten eta han zegoen nire izena. Ezustean hartu nuen. Komunikabideetan entzuten zen deialdian sar nintekeela, baina nire izena zerrendan ikustean sorpresa hartu nuen.

Eta At. Madrilen aurka hasieratik jokatuko zenuela?

Igande arratsaldean laurak aldera. Carlos Garcia nuen logela kidea eta honek hasieratik jokatuko nuela esaten zidan. Nik, ordea, deialdian sartuta negonenez minutu batzuk jokatu nitzakeela uste nuen. Azkenean Carlos Garcia berak esan zidan hasierako hamaikakoan nengoela. Urduri jarri nintzen eta komunera joan behar izan nuen berehala. Lau t'erdia aldera merientatzera jeitsi ginen eta bakar-karekin hitz egin zuen Luis Fernandezek. Jokatzeko gogorik banuen galdegin eta lasai jokatzeke esan zidan.

Zer moduz Vicente Calderonen?

Hasieran zelaia nola zegoen ikustera joan ginenean ezin

nuen arnasa hartu, urduri nego-
en oso. Ondoren aldageletara
joan, aldatu eta bero-

tzen hasi ginenean lasai nen-
goen. Hala ere sekulakoak en-
tzun genituen zelaira irten gine-
nean; oihukak, txistuak... dene-
tik. Ahal nuen neurrian inguruko
guztia ahazten saiatu nintzen;
baloia hartu eta aurrera.

Hasierako momentu haietan zer zebilen zure buruan? Zer pentsatzen zenuen?

Egia esan ezer berezirik ez,
ahalik eta partidu onena jokatu
behar nuela pentsatzen nuen.
Hala ere presioa haundia zen.
Galduaz gero beheko postue-
tara jeisteko arriskua genuen
eta beheko postuetan egon
arren At. Madrid ez zen nola-
nahiko taldea. Partidu zaila zen
eta gainera Vicente Caldero-
nen. Hala ere beste jokalariek
asko lagundu ninduten.

“Izarren ligan” debuta egin duzu. Aldaketa haundia al dago beste mailak eta lehen mailaren artean?

Ezin dut baiezkorik edo ezez-
korik eman. Zelaia putzuz be-
tea zegoen eta ez zen erraza
han jokatzeko. Parisen jokatzera-
koan ez nuen aldaketa haundi-
egirik nabaritu eta entrena-
menduetan ere ez. Erritmoa
haundiagoa da, baina bestela
aldaketa ez da haundia izan.

Nik behintzat dena eman dut,
bai entrenamenduetan eta
baita partiduetan ere.

Kiko, Gamarra, Santi... eta David Asensio haien artean.

Kornerretan eskubitara begi-
ratu eta Molina ikusten nuen;
ezkerrerera begiratu, eta Kiko.
“Zer egiten dut nik hemen?”
galdetzen nion nire buruari.
Ahal nuena egin nuen eta
kitto.

Bigarren zatiaeren hasieran aldatzean argibiderik eman al zizun entrenatzaileak?

Luis Fernandezek aurrean
asko mugitzeko esan zidan.
Aulkian zeudenak irten aurretik
defentsak nekatzea zen bere
asmoa, eta bukaeran ondo
irten zen dena. Ateratzerakoan
ondo jokatu nuela esan zidan.
Segituan dutxara joan nintzen,
eta han nengoela, partidu
amaieran, beste jokalaria denak
oihuka sartu ziren. “Pasada”
bat izan zen, denak builaka,
masajistik emozionatuta...

Athletic-ekin aurten debuta egin baduzu ere, denboraldia- rekin ez zaude gustora.

Ez, oso denboraldi txarra izan
da niretzat. Hasieran rotulan
tendinitisa izan nuen. Hilabete
bat geldirik egon ondoren,
lehen partiduko hamairugarren
minutuan ostikada bat eman
eta femurra hautsi zidaten. Bi

hilabetera osatu eta lehen tal-
dearekin jokatu ondoren berriz
lesionatu naiz.

Denboraldia amaitu al da zuretzat?

Baietz uste dut. Azken bi par-
tiduetarako osatu naiteke,
baina ez du merezi. Hurrengo
denboraldirako ondo jartzea
nahiago dut. Pena izan da
debuta egin ondoren min har-
tzea. Lehen taldearekin jarrai-

Luis Fernandez joateak pena ema- ten dit, nigan konfi- dantza jarri baitu. Hala ere Athletic- entzat hobea izan- go dela uste dut

tzeko aukera banuen, baina...
Animo aldetik lur jota utzi nau
lesio honek.

Luis Fernandezek begikoa omen zinen zu eta Luis Fernan- dez badoa.

Niri berdin zait, entrenatzaile
batekin edo besterekin gogor
entrenatu beharko baitut lehen
mailan jokatu ahal izateko.
Bera joatea pena ematen dit,
nigan konfidantza jarri baitu,
baina Athleticentzat hobea
izango dela uste dut. Hiru urte
eman ditu hemen, eta azken
aldian Bilboko jendea berarekin
ez zegoen oso gustora. Orain
zein datorren ikusi behar; ea
jende gaztearengan konfidan-
tza jartzen duen.

Realaren kontrako derbian realzaleek infiltratu bat izan omen zuten Anoetan.

Infiltratua ez dakit, baina
Pana txiki eta biok Peña Mujika-
koen ondoan ikusi genuen par-
tidua. Inork ez ninduen ezagu-
tu, izan ere Lezaman bakarrik
bainaz ezaguna. Athleticetik
gola sartu zuenean isil-isilik
egon nintzen eta gero... Pana
txiki saltoka eta ni han aldame-
nean geldi-geldirik. Asko gusta-



Usurbilgo Lanbide Eskola: Kalitatea eta etengabeko hobekuntza

Usurbilgo Lanbide eskolaren zeregina pertsonak gizatasunean eta tekniki hezitzea eta trebatzea da; jarrera etikoak, izpiritu kritikoa, ikastearekin poztasuna, inguruarekiko begirunea eta gizar-tean txertatuko direnak; unibertsitatean edo lan munduan sartzeko gai izan, edo beren enpresa sortzeko gai izango direnak.

Usurbilgo Lanbide Eskolaren bokazioa enpresen aurrean prestakuntza teknikoan erferentzia den eskola izatea da; itxura zaindua eta ospe onekoa izanez, beste eskolekin harremanak izanez; eskola, enpresa eta unibertsitatearen arteko loturak erreztzen dituen, teknologia berrien ezarpena erreztzen dituen eta enpresa berrien sorrera sustatzen dituen ikerketa proiektuak garatuaz.

ISO 9002


Eskolak, ISO 9002 ziurtagiria jaso du, bai Araututako Heziketarako, bai etengabeko prestakuntzarako, Hezkuntza kalitatea ziurtatzeko sistema eredu bat ezzartzen aintzindari izanez.

Ikasleek guztira 2000 ordu egin behar dituzte ziklo formatibo bakoitzean. 2000 ordu hauetatik 1650 ordu ikastetxean egin beharko dituzte eta beste gainontzeko 350 orduak enpresetan egin beharko dituzte. Lantegiko praktikak egiteko enpresa laguntzaileen zerranda

Instalazioetara ikustaldiak; dauzkagun instalazioak ikusi eta irakasten diren espezialitateen informazio zehatzagoa jasotzeko Eskolak ikustaldi batzuk antolatzen ditu. Ikustaldi hauetara etortzeko interesaturik egonez gero, idazkaritzarekin harremanetan jarri.

Telf: 943 36 46 00 ■ Faxe: 943 36 66 89

Aurrematrikula; Ekainaren 1etik 12ra



luzea da. Hauek dira zerranda honetako enpresa batzuk: Berriola, S.COOP, Fagor-Luzuricaga, Ingemar, S.A., Moulinex, Neumaticos Michelin, Plasticos Larrañaga, Talleres Echeverri

Zubietako Lanbide Heziketak lane-rako kolokazio maila handia eskeintzen ari da gaur egun. Momentu honetan, gainera, gauza bitxia pasatzen ari zaigu; LANGALEk enpresetan lan egiteko behar dituen ikasle baino gutxiago ditugu.

Bestalde, lantokiko prestakuntza hauek hemengo enpresetan ere egin arren, aurten kanpoko enpresekin ari gara lanean. Orain zortzi ikasle ditugu Finlandian praktiketean.

Eskaintza Akademikoa:

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK:

- Elektrizitate-elektronika arloa:

. Ekipo eta instalazio elektronikoak

- Fabrikazio mekanikoa arloa:

. Mekanizazioa

- Produkzio-zerbitzua eta mantenimendua arloa:

. Makinaria eta linea-eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK:

- Elektrizitate-elektronika arloa

. erregulazio eta kontrol-sistema automatikoak

- Fabrikazio mekanikoa arloa

. mekanizazio bidezko produkzioa

- Produkzio-zerbitzua eta mantenimendua arloa

. eraikin eta prozesu-instalazioen mantenimendua eta jartzea



IRITSI DA UDABERRIA

Urtinea Elkartea



*Barruko eta kanpoko
loreetan aukera
zabala*



**Egun guztian
zehar zabalik!**
Telf: 943 36 22 55
San Esteban

*Erramuak- koroak-
lore lehorrak- tiestoak...*





LORATEGIAK TXUKUN!



Jokin Pagola ►► Paisajista

“Gustoko tokian aldaparik ez”

Gustatu egin behar zaigu, aukera izateaz gain, noski, landareen mundua. Izan ere, lorategia egitea eta txukun mantentzea ez baita lan erraza.

Poliki-poliki egin behar dugu. Denbora hartu pentsatzeko eta saiatu gauzak argi edukitzen.

Zer landatu gure lorategian? Uste dut ia denok daukagula zuhaitz, zuhaixka, konifero edo lore gustukoren bat. Beraz, gure lorategi propioan berau landatzea ideia polita izan daiteke.

Nahi berezirik ez baduzu mantxoan hazten direnak erosi. Gehienetan jendeak azkar hazten diren landareak nahi izaten ditu, baina, orokorrean, azkar hazten dena azkar ihartzen da (zuhaitzen kasuan, egurra ere ustel samarra izaten dute). Hartu pazientzia! Honetaz ohar zaitzeten, har ezazue kontuan, lorazain baten-tzat gauzarik ederrena (niretzat behintzat), haiek nola hazten diren ikuste dela!

Hobe da gutxi, baina onak eta ondo zainduak edukitzea horren ordeaz asko, baina gaizki eta bazterrean ahaztuak edukitzea baino.

Nola egin beharko litzateke landaketa hori?

Lehenik, guk landatu behar dugun landare horren ezaugarriak ezagutu behar genituzke; nola landatu, non (itzala ala eguzkia), batetik bestera mantendu beharreko distantziak, lu mota eta, ahaztu gabe, landare horren hazkunde aurreikusia.

Hesiak egiteko ohitura haundia daukagu. Hainbatetan ez dira beharrezkoak baina hala eta guztiz ere jarri egiten ditugu (agian, gure buruan daukagun hezien ondorio?), nork bere buruari lan gehiago emanaz. Beraz, esanak kontuan hartuz, ondo pentsatu edozer jarri baino lehen!

Lorategi berri bat diseinatzerakoan nire buruari egiten diodan galdera nagusia honakoa da : zergatik?

Buru nekatu beharra dago pixka bat, bederen. Baldintza guztiak aztertu, lorategiaren nagusiarekin hitz egin eta, azkenean, “zergatik?” galderari erantzuna bilatzen saiatu.

Lorategiaren diseinuari egitura batekin, ardatz batekin, osagai batekin erantzun behar zaio. Bideak eta bidezidorrak diseinatu ezer baino lehen eta azkenerako utzi apaingarriak (loreak, zuhaixkak). Horiek janzten dute gure lorategia baina ez dute lan handiena ematen.


Azken aholkua: ahalegindu urtaro guztietako kolore eta konbinazio txukunak lortzen. Ez aurreikusia dotorezia udaberri edo udarako bakarrik.

Mundu honek baditu milaka aurpegi!

Saiatu



Aranburu biberokak



Villa Aingeru Telf: 943 64 60

Aginaga

Jose Angel Zubeldia (OA)

FRUTALAK

Egunetik egunera jendeak ohitura gehiago du frutalak erosteko. Batez ere baserriarrek erosten dituzte, dipitazioetik jasotzen duten dirulaguntak nahiko onak direlako. Hala ere, etxe haundietan bizi direnen arten ere frutalak erosteko ohitura sortzen ari da. Etxe haundietako jardinetan gerroz eta gehiago ikusten dira bertako nahiz kanpoko frutalak. Normalean, frutalak erostera etortzen direnak bertako frutalak erosten ditu. Sagarrondoak da gehien saltzen dena; errezil sagarrak erosten dira hasieran, gero san juan sagarrak, san inazio sagarrak, etab. Sagarrondoaz gain, gereziak, aranak, txakolin mahatsa, ardo mahatsa, mozkatela,... ere erosten dira. Hauek bertako frutalak dira. Hala ere, kanpoko frutal batzuk ere saltzen dira; feijoa asko saltzen da, nahiz eta nahiko garestia izan kanpotik inportatzen delako. Kiwiak erosteko ohitura ere ugartzen ari da, melokotxiak, briñoiak... ere saltzen dira. Frutalak erosteko garairik onena azaroa eta abendua hasieratik martxo bukaerartereko epea da. Garai honetan erosten dira gehienak batez ere.

Aranburu biberokak

Udaberria heldu orduko, askok eta askok hasten gara batetik bestera gure etxeetako jardinak apaindu asmoz. Aranburu biberokak baduzu zer aukeratu, eskeintza zabala baitugu horretarako. Aranburu biberokak Aginan dago, Aingeru etxean. Maiatzaren 1ean gure irekieraren zazpi garren urtemuga betetzen dugu.

Hemen mota askotako landareak aurkitu ditzazkezu:

- Etxean egindako landareak; orain jada, ez dugu lehengo prozesua jarraitzen. Lore eta landare asko Bartzelonatik ekartzen ditugu, kanpoko edozein gaitz eta izurriteetatik landareak babesteko duen tratamendu berezi batekin.

- Denboraldiko landareak; geranioak, etxeko pozak, begoñak, hiedrak,...

- Zuhaiak; euonimus, phitosporum, hortentsaik,...

- Frutalak

- Jardinetako landare bereziak; estatu mailako biberoketan ibiltzen gara landareak aukeratzeko, landare onak izateaz gain originalak ere izateko.

- Zeramikak

Beraz, badakizue! amari zer oparitu ez dakizula bazabiltza oraindik, landare eder bat oparitu eta ez duzu hutsik egingo!





Aitziber Matxain **Urtineako langilea**

Udaberria iritsi da eta berarekin batera lotan zegoela zirudien natura esnatu da, zuhaitzak hosto-berritzen hasi dira, txoriak abesten, intsektuak ugaritzen...

Baina landare eta zuhaitz gehienak giroa lagun dutela ohartu bezain pronto, beste lan bati ere ekin diote gogor, ugaltzeari. Beren espeziak iraun dezan ondorengoak uzten saiatzen dira, honetarako loretuaz.

Lore hauek modu askotakoak izan daitezke; batzuk txikiak eta kolore gutxikoak (graminea batzuenak, intxaurra, urritza... bezelako zuhaitzenak etab.) izaten dira, eta gutako asko ez gara ohartu ere egiten hauetaz, baina beste batzuek, kolore bizikoak, usain gozokoa... izaten dira, landarearen organu hauen helburua intsektuak erakarri eta polonizazioa

burutzea da, baina lora koloretsu hauek guri ere erakargarri eta gozagarrri egiten zaizkigu.

Honela, mendez mende gizakia bere ustez erakargarri edo politenak eta tokian tokiko klimara egokitzen ziren landareak aukertzen eta lantzen joan da. Hauetako batzuk dira hain zuzen ere gaur egun gure inguruko bizitegi eta loretegiak eskaintzen dizkigutenak.

Orain garai egokia da gure balkoi edo jardinetan udaberri eta udara tartean, ondo zainduz gero, loretan edukiko ditugun landareak aldatzeko, toki bakoitzean batzuk besteak baino egokituko dira:

	EGUZKIA	URA
Etxeko poza (<i>Alegria de casa</i>)	●	●●●
Gineako poza	■	●●●
Begonia <i>siempreflor</i>	●	●●●
Surfinia	■	●●
Geranioak	○	●

Elkarrizketa



Xanti **Udaletxeko landareen zainketarako arduraduna**

Zein da zure lana, zehazki?

Zuhaitzen eta belarren mozketak egiten ditut gehienbat. Honetaz gain, landareen osasunaren jarraipen bat ere egiten dugu, tratamenduren bat edo beste egin behar bada ere guk egiten dugu. Jendearen kexuak ere bideratzen saiatzen gara, hauen jarraipen bat egin eta konponbideren bat bilatzen saiatzen gara. Hilerriko konponketak ere guk egiten ditugu, loreak txukundu, garbitu, etab.

Zenbatero konpontzen dira jardinak? Zenbat lan eskatzen dute?

Lan dexente eskatzen dute. Momentu honetan, urtean 10-12 aldiz egiten ditugu mozketak. Azken finean, gauzarik garrantzitsuena belarra maiz moztea da, txukunago azaltzen da.

Prestakuntza berezirik behar al dute?

Landare batzuk badaude, puntualki, lorealdiaren arabera zaindu beharrekoak. Esan bezala, landare batzuk beren lorealdiaren arabera kimatu behar dira, batzuk udaberrian, beste batzuk neguan,... Guk dagoeneko badakigu zein lore eta landare diren. Zakurrekin ibiltzen gara borroka bizian, uzten dituzten "erregaluekin" batez ere. Ea laister konponbideren bat bilatzen diogun honi ere.

Bestalde, jardinek duten diseinuaren arabera ere mantenimendu eta prestakuntza berezia ere egoten da.

Zenbatero aurrekontua behar da?

Normalean, gastu haundiena obra berriak egiten direnean egoten da. Baina, hauek aurrekontu orokor baten barruan egoten dira. Mantenimenduari dagokionez, orain arte bi milioi pezetetako aurrekontua gutxi gora behera egon izan da. Mantenimendu hontan ongarriak, tratamendua egiteko produktuak, materiala (egurra,...) etab. sartuko lirateke. Hala ere, konponketaren eta mantenimenduaren arabera urteko aurrekontu hau haunditu edo gutxitu daiteke.



Aitzagaren VI. urteurrena ospatzeko talde txekiar baten kontzertua

Aitzaga Elkarateak sei urte bete ditu dagoneko. 1994ko maiatzetik jende ugari biltzen da bertan, eta horrez gain herrian ekintza ugari antolatzen dituzte urtean zehar. Seigarren urteurren hau aitzakitza hartuta maiatzan zenbait ekitaldi burutuko dituzte. Ekitaldi garrantzitsuena maiatzaren 19an izango da. Udarregiko erdiko aretoan CzechoMor talde txekiarraren kontzertua entzun ahal izango da.

Zuberoako Urdinarbe herriarekin Aitzaga elkarateak duen harreman bereziari esker, folk musika egiten duen **CzechoMor** musika talde txekiarra entzuteko aukera izango da maiatzaren 19an. Urdinarben, nazioarteko musika taldeekin musikaren eguna antolatzen dute urtero maiatzan, eta 1997an eta iaz han parte har-

tzen duten taldeetako batzuk gure herrian izan ziren.

Nondik sortu zen harreman hori? **Lontxo Zubiria** Aitzaga elkarateko kidearen esanetan Elhuyarren lanean ibili zen neska zuberotar bat ezagutzearan hasi zen guztia. "Hemen bizi zenez, 1997. urtean "More Power" talde irlandarra Usurbila ekartzeko proposamena egin zigun. Hurrengo urtean huts egin genuen eta iaz McKenzie ahizpak eta Euskal Herrian bizi diren irlandesez osatutako talde bat izan genituen gure artean. Aurten Zuberotarrekin harremanetan zerbait egiten dugun hirugarren urtea izango da".

Urdiñarbeko musika egunean parte hartzen duten musika taldeak dira Usurbila etortzen direnak. "Nazioarteko talde hauek modu onez, diru gutxi-

ren truke etortzen dira Zuberoara, eta antolatzaileak beste kontzertu batzuk emateko aukera ematen diete. Lurdesen, Landetan... musika herrikoia maite duten leku batzutan kontzertuak ematen dituzte, baina hegoaldera bisitatxo bat egitea ere egoki ikusi zuten antolatzaileek". Bide honetatik iritsiko da **CzechoMor** talde txekiarra ere.

Maiatzaren 19an, larunbatean, gaueko 22.30etan hasiko da da kontzertua Udarregi ikastolako erdiko aretoan. Sarrerak 1.000 pezetan egongo dira salgai herriko tabernetan.

Pelota partiduak eta hitzaldia

Aldez aurretik, ordea, beraien seigarren urteurrena ospatzeko ekitaldi gehiago antolatu dituzte Aitzaga elkaratekoek. Maiatzaren 13an, arratsaldeko 18.00etan hasita lau eta erdi barruan pelota partiduak ikusi ahal izango dira herriko frontoian. Eta ez nolana hiko partiduak alajainkoa. Lehen partiduan "profesional mailara" iristeko aukera duten lau pelotari izango dira aurrez aurre. **Mikel Orena eta Enbortxok** osatutako bikoteak **Paulino Iburguren eta Joxe Manuel Ikutzaren** aurka neurtu beharoko dituzte indarrak. Bigarren partiduan, berriz, lau eta erdi barruko buruz buruko txapelketako errebantxa jokatu dute **Haritz Urdanpilletak eta Javier Sanchok**.

Hitzaldi bat ere izango da. Maiatzaren 18an Aitzagako beheko aretoan Txetxeniarri buruzko hitzaldia emango du Askapenako **Gabiel Ezkurak**.

Josu Aranberri



Czechomor Txekiako folk talde bat da. Biolina, txeloa, gitarra akustikoa eta elektrikoa akordeoiarekin eta batzuetan Txekiako instrumento batekin, bagpipearekin nahasten dituzte. IAz Europa mailako kontzer-

tu garrantzitsuetan jo zuten, Alemaniako Rudolstadt Festival delakoan eta Belgikako Folk in Drancuter delakoan. Beraien hirugarren CDa kaleratu berri du Usurbila datorren Txekiako folk talde honek.

200.000 pezetan saldu zen enkantean Gipuzkoako ezti onena

Eztia urre kolorekoa izaten dela gauza jakina da, baina bere prezioa ez da urrearenera gerturatzeko. Pasa den apirilaren 29ko erle eguneko ikusita bestelakorik esan daiteke, ordea; Eroski etxeak 200.000 pezetan erosi zuen Gipuzkoako lehiaketa irabazi zuen Azkoitiko Bittor Larrañagaren ezti: kilo erdi bat bi potetan banatuta.


Juan Mari Arzak, Martin Berasategi, Pedro Subijana... sukalde munduko jende ezaguna herriko frontoira gerturatu zen pasa den apirilaren 29an. Izan ere erle egunak jende ugari erakarri zuen gure herrira. Ezti ezezik, erlearekin zerikusia zuten beste hainbat produktu ezagutzeko eta eros-teko aukera izan zen dema plazan jarri zituzten saltokietan.



Irun, Getaria, Altzo eta Usurbilgo Gorostitxo eztiolan egindako eztiak gain, Tafallan, Ahatsan, etxalarren eta beste hainbat lekutako eztiak ikusi eta erosi ahal izan ziren bertan. Mota askotako eztiak zeuden gainera: milalorea, txilarra, erromeroa, gaztain ezti... Horrez gain, eztiarekin eginda-

ko produktu ugari ikus zitezkeen saltokietan: pastelak, argizariak egindako eskultura txikiak, ukenduak...

Hala ere Gipuzkoako Ezti txapelketa eta ezti irabazlearen enkantea izan zen ikusmin haundiena sortu zuena. Saltokiak jendez gainezka zeuden bitartean epaimahaikideak (Arzak, Berasategi, Subijana...) ezirik onena aukeratzen egon ziren oholtza gainean. Guztira 107 ezti hartu dute bparte lehiaketan, baina horietatik 21 onenak probatu zituzten epaimahaikideek. Azkenean Azkoitiko Bittor Larrañagaren ezti izan zen onena. Eroskik 200.000 pezeta eskaini zituen enkantean eta beretzat izan zen ezti hau. Ezti irabazlea maiatzaren 16an irekiko den Urbil merkataritza gunen berrian bezeroen artean zozketatuko dute



gorriti
EDARITEGIA

kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

**TXURRUT
TABERNA**



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel:943 36 00 80

Aberri eguna

Pasa den apirilaren 23an Aberri Eguna ospatu zen Euskal Herri osoan. Udalbiltzaren deia jarraituz ekitaldi berezia egin zen Usurbilen ere. Goizean goizetik inoiz baino ikurrina gehiago ikusi zitezkeen herriko balkoietan, eta "Euskal presoak Euskal Herrira" lema zuen zapia ere jarri zuen jendea. Izan ere, udalak etxe-etxe banatu zituen ikurrina eta beste zapia. Eguerdian berriz, Udalbiltzaren idatzia irakurri zen ekitaldi nagusia egin zen Joxe Martin Sagardia plazan.



Pasa den apirilaren 26an txanda bakoitzeko bi orduko geldialdia egin zuten Lasarteko Michelinen lan istripuan hil zen Jose Miguel Corralen heriotza eta lan istripuen ugaltzea eta hauen larritasuna salatzeke. Lan istripu larria apirilaren 1ean izan zen ZP/Farrel tailerrean. Hala ere, Michelingo langileak 23an hil zen istripuan jasandako lesioen ondorioz. Bi orduko geldialdiez gain, lantegiaren aurrean protesta konzentrazioa egin zuten bertako langileek.

Kirol kontuak

Nazioarte mailan puntan-puntan dabilzan bi kirolariren aipamena egin beharrean gaude oraingoan. Eskubaloian **Xabier Mikel Errekondok** Europa mailako erreropa irabazi berri du Portland San Antonio Iruñeako taldearekin. Txirrindularitzan, berriz, **Haimar Zubeldia** sasoi puntu ona hartzen hasia da. Holandan eta Frantzia egon ondoren, laugarren postuan amaitu du Errioxako itzulia. Ea aurten garai-penen bat lortzen duen Oakoak.



Bota Punttuba bertso eskolak XXIV. Santixabel lehiaketa antolatu du. Aurten gaia librea izango da eta sariak 30.000 pezeta eta txapela lehenengoarentzat, 20.000 pezeta bigarrenarentzat eta 10.000 pezeta hirugarrenarentzat. Bertan parte hartzeko usurbildarra izan behar da eta gutxienez zortzi eta gehienez hamar bertso aurkeztu beharko dira udalean ekainaren 22a baino lehen. Bertsoek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute. Argazkian Elias Sagardia, iazko irabazlea




Nekazaritza aholku batzarrak aspaldiko ohitura bat berreskuratuko du. Maiatzaren 15ean San Isidro eguna da, baserritarren eguna, eta egun horretarako egitaraua osatu dute. Goizeko 10.30etan meza izango da bertsolariekin. Ondoren lokotx biltzea eta Kinttin Segurola eta Evaristo Pikabea bertsolariak dema plazan. Idi-dema ere ikusi ahal izango da, Santuenea eta Egioletako idiak arituko baitira aurrez aurre. Ahari jokoarekin amaituko da egun horretarako egitaraua.

IGELTSERITZA

URDANTZI, C. B.

Mugikorra: 649435475
649435476
☎ 943 363370- 361439



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



Herriarteko txapelketa eta haur eta gazteen Usurbilgo txapelketa pelotan

Esku pelota gero eta indar haundiagoa hartzen ari da, profesional mailan bai behintzat. Herrian, ordea, ezin berdina esan. Haurrak indartsu badatoz ere, Gipuzkoako Herriarteko txapelketa jokatzeko pelotariez eskas xamar omen dabilta. Hernaniren aurka jokatu zuten lehen kanporaketa eta hiru taldeek galdu egin zuten. Bestalde, haur eta gazteen Usurbilgo txapelketa jokatzeko hasi dira herriko frontoian.

Aurten inoiz baino herri gutxiago aurkeztu dira Gipuzkoako Herriarteko Txapelketara. Herri askok kadete, jubenil eta seniorretan bikoteak osatzeko zailtasunak izan dituzte, eta horregatik ez aurkeztea erabaki dute. Gure pelotariak, ordea, azken urteetako ohiturari jarraituz txapelketa jokatzeko hasiak dira.

Kadete mailan **Asier Portu eta Asier Arruti** dira gure ordezkariak, jubeniletan **Jon Arruti eta Haritz Esnal** eta senior mailan **Enrike Huizi eta Imanol Zarautz**. Hala ere, **Enrike Huizik** esan digunez beraiek ere larri xamar ibili dira bikoteak osatzeko orduan. "Jubeniletan **Jon Arrutik** ia ez du

Usurbilgo taldea larri xamar ibili da maila bakoitzeko bikoteak osatzeko orduan

*entrenatu belauneko minarekin ibili baita. Seniorretan berriz, **Imanol Zarautz** eskutako minez ibili da eta lehen partidua **Javi Sanchezekin** jokatu behar izan nuen. Beraz, bi aurrelarik jokatu behar izan genuen joaneko partidua".*

Izan ere pasa den apirilaren 30ean jokatu zituzten lehen kanporaketako joaneko partidua. Iaz bigarren postuan gelditu zen Hernani izan zuten aurkari, eta gauzak ez ziren nahi bezain ondo joan. Hiru partidua galdu zituzten. Kadeteek 18-12, jubenilek 22-10 eta Seniorrek 22-16. Itzulerako partiduetan kanporaketari buelta ematea, beraz, oso zaila izan-

go da. Partidu hauek herriko frontoian jokatu dira datorren maiatzaren 5ean

Haur eta gazteen Usurbilgo txapelketa

Bestalde, pasa den apirilaren 29an hasi zen haur eta gazteen Usurbilgo txapelketa. Txapelketa honetan bailarako pelotariak parte hartuko dute, nahiz eta tartean izango diren Goizuetako eta Azpeitiako pelotari batzuk ere. Benjamin, alebin, infantil eta kadete mailetan 52 bikote arituko dira lehiatzen eta tartean izango dira herriko 14 bikote. Partidua astearte, ostegun eta larunbat arratsaldetan eta igande goizetan jokatu dira. Finalak, berriz, ekainaren 4an izango dira ezeren okerrik ez bada behintzat.



ZENDOIA-ENEA

TABERNA

Gosariak, hamaiketakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

Xinkildegia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1. behean,
20170 Usurbil Tlf. 943 36 17 87

EMAITZAK

14 urtetik gora

Apirilak 14-15

Kopon 2 - Txurru 35
 Bagitxiestik 4 - Aston Pilla 5
 Txiriboga 3 - Aitzaga 6
 Kixkal 5 - ATPCT 13
 Tutti Fruti 3 - Zubeldia 7
 Aitzaga 24 Ensalada mixtoa 3
 Beti Alai 5 - Antxeta 12
 Akerra 5 - Burusoiltxo 4
 Telesforo 13 - Zendoia 2
 Zakilixut 0 - Batez 1

Apirilak 29

ATPCT 4 - Antxeta 7
 Zendoia 3 - Batez 7
 Txiriboga 10 - Ensalada mixtoa 3
 Kixkal 3 - Beti Alai 5
 Akerra 5 - Txurru 13
 Bagitxiestik 20 Kopon 1
 Burusoiltxo 3 - Aston Pilla 23
 Aldabaldarrak 9 - Zubeldia 6
 Telesforo 5 - Zakilixut 4

14 urtetik behera

Apirilak 14-15

Usurbil 1 - Olasagasti 39
 Txikilino 10 - Martin Fruituak 12

UGA ren futbito txapelketa

Baloi barru sartu ote da?

Hasi da Gazte Asanbladak antolatutako areto futbol txapelketa. Argazkiko hauek ere jokutzen ote dute ba? Garai hartako sasoi izan balute, agian, baina orain...

Hala ere talde faltarik ez dago. 14 urtetik gorakoetan 20 talde hasi dira txapelketa jokutzen eta 14 urtez azpikoan berriz lau.

Pasa den apirilaren 7 eta 8an jokatu ziren lehen partiduetak eta orduraz geroztik giro ederra sortzen da ostiral eta larunbat gauetan herriko frontoian. Haur, gazte, heldu, emakumezko nahiz gizonezko, baloiaren atzetik hor ibiltzen dira ahalik eta gol gehien sartu nahian; edo ahalik eta gol gutxien jaso nahian noski!

DATORREN JARDUNALDIA

Maiatzaren 5a, ostirala

20.00etan Bagitxiestik - Aston Pilla
 21.00etan Burusoiltxo - Txurru
 22.00etan Batez - Zubeldia
 23.00etan Txiriboga - Kixkal

Maiatzaren 6a, larunbata

18.00tan Olasagasti - Martin Fruituak
 19.00etan Txikilino - Usurbil
 20.00etan Akerra - Kopon
 21.00etan Ensalada Mixta - Antxeta
 22.00etan ATPCT - Aitzaga
 23.00etan Zendoia - Tutti Frutti
 24.00etan Aldabaldarrak - Telesforo



ARRAINDEGIA
PELLO

Arizeta Kalea, 1
 Tlf 36 21 64
 USURBIL



**ZUMETA
 JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK
(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz.
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaperez.
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piliko piperraz haragi saltsetan.
- Etxeko azkenburukoan dastapena
- Ogia eta kafea 3.675 pza. (pertsoneko)

**TXARO ARTZE
 ILEAPAINDEGIA**

**Buru-azalaren zainketa
 Ile-apainketa**

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85

Irisasi: Andatza eta Iria gailurrak dituen mendi zabala

Maiatzaren 7an Andatza eguna dugu. Guk Andatza deitzen diogu, baina hori ez da mendi osoaren jatorrizko izena. Irisasi mendia, horixe du berezko izena. Andatza izen berria ote da ba? Ez horixe, antzinatik dator Andatza izena ere, baina ez da mendiaren izena, mendi gailur batena baizik. Izan ere mendi hori bat bakarra da: Irisasi mendia eta honek bi gailur ditu: bata, gurutzea dagoeneko, Andatza; eta bestea antena eta buzoia daudeneko, Iria edo Irigain.

Irisasi mendi osoa Orreaga edo Roncesvalleseko fraileen esku zegoen 1249.urtea baino lehenagotik. Oso litekeena da Nafarroako erregek berak eman izan izana Irisasi Orreagako monasteriari. Izan ere, 1200 urtera arte, Nafarroako erresuma barrukoa zen Gipuzkoa, eta gipuzkoarrak herritar nafarrak ziren. Kontua da erregarena izango zela lehendik Irisasi, inortxok ere ez baitzuen inoiz beretzat erreklamatu geroztik: ez Zubietak, ez Usurbilek, ez Urdaiaga-Aginagak, ez Donostia...



Javier Ibarrek dioenez XIII. mendearen hasieran Don Hernando de Blancafort zaldunak eman omen zizkion Iria eta Andatza Roncesvalleseko monastegiari. 1270. urtean, berriz, Irisasiren ingurumarietako beste zenbait lurralderen jabe egin ziren. 1406. urtean Orreagako fraileen eta Juan Beltran Atxegako jaunaren arteko hitzarmena edo konponketa izan zen. Atxegako jauntxo horren indarraren beldur, bakearen izenean, zenbait eskubide ezagutu omen zizkieten, hala nola, Irisasi menditik nahi hain-

bat errota harri ateratzeko eskubidea eta beste.

Orreagako fraileena izan aurretik, tenplario delako zaldunena izan zela Irisasi uste dute batzuek, eta Tenpluko zaldunak izeneko ordena erlijioso-militar hori desegitean, orduan, tenplarioek hala nahita, Orreagako monastegiari eman ziotela. Hala ere kontu hori ez dago batere garbi.

XVI. menderako lur sail haundien jabe bilakatu ziren Orreagako fraileak Usurbilen. Lurralde horien barruan zegoen, beraz, Irisasi mendi osoa, Andatza eta Iriamendi eta guzti. Hala ere, ordurako, Irisasiko eskubideak zirela medio, gora-behera ugari izanak zituzten Orreagako fraileak bai urdaiaga-aginagarrekin, eta baita oriotarrekin ere. Zer eskubide ziren horiek? Zubietatik eta Usurbildik Aiarako eta Zizurkilerako bideetatik ibiltzeko eskubidea. Bestetik, Oriotik Zizurkila nahiz Billabonara mendiz joan ahal izateko bideak libre izatea. Gainera, uraz, garoaz, belarraz eta orbelaz baliatu ahal izateko eskubidea...

Guzti honegatik, 1577. urtean, mendi eta lur horiek satzea



Iria gailurretik begiratuz Orio, Zarautz eta Getaria ikus daitezke

erabaki omen zuten fraileek. Horretarako, garai hartako Espainiako errege Felipe II-aren baimen berezia ere eskuratu omen zuten alde zurretik. Eroslea, Joan Lopez Agirreko donostiarra zen. Salmentarako erabaki ziren baldintza guztiak ez omen zituen bete, ordea, eta fraileek jarraitu zuten Irisasi-
ren jaun eta jabe.

Hala ere, Asintxio Elustondok Orreagako artxihoan aurkitutako dokumentuan erostuna Aginagako komunitatea zela jarritzen zuen. *"Andatza-Irisasik sesio asko eta etekin gutxi ematen zizkien kalonjeei (urtean 60 dukat besterik ez). Saltea erabaki zuten, 800 dukaten aldera. Dirutza hori epe luzean ordaintzekotan; baina osorik pagatu ezean, Orre-garentzat geldituko ziren Andatza eta Irisasi. Erostuna Aginagako komunitatea zen. Hitz eman zuten 800 dukat horiek ordainduko zituztela, eta hitza bermatzeko hor jarri zituzten bitarteko beren etxeak, baserriak, lur landuak eta landugabeak, sagastiak, hariztiak, txarak, belardiak, larreak, fruta-arbolak eta urak. Eta gainera, baita Zumarte, Lasao eta Zebogeldo erroten errentak ere. Orreagako artxihoan dago dokumentua, eta azkenean hitz hauek jartzen ditu: "No se realizó". Salmenta ez zela bete, alegia".*

Joxe Ramon Zubimendiren iri-



Maiatzaren 7an Andatza eguna ospatuko da

tziz Joan Lopez Agirreko Aginagako komunitatearen izenean egin nahi izan zuen erosketa. Izan ere, garai beretsuko beste agiri batean, 1588. urtekoan, Joan Lopez Agirreko delako lizentziatua azaltzen baita Usurbilgo herriaren prokuradore.

1980 urteaz geroztik Foru Aldundiaren eskumenean dago Irisasi

1841. urtean, Lehen Gerrate Karlista amaitu ondoren eta Desamortizazioaren legea baliatuz, Espainiako Estatuak beretzat hartu zituen Orreagako fraileek Irisasin zituzten lur-sail guzti-guztiak. Ondoren,

1980an-edo, Eusko Jaurlaritzaren ardurapera etorri ziren Irisasi mendiko lurrok, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenean geratu.

Irisasiko zuhaitzetatik egur ugari atera izan da mendetan zehar. Orain 200 urte, adibidez, hogeitabat mila haritz adina ba omen zeuden ingurumaria honetan. Banan-banan aldatuak, zainduak eta behar bezala begiratuak, gainera. Gero itsasontziak egiteko erabiltzen zituzten, urrutira eraman gabe. Izan ere, Urdaigagan, Aginagan (Mapilena) eta Orion ontzigintzan jarduten baitzuten garai batean, eta haritz egurra izaki, nonbait, zurik egokiena itsas-lanetarako. Zuraz gainera, burdinolek behar izaten zuten egurrikatza ere hortik sortzen omen zen; baita etxeetarako behar izaten zen su-egurra ere.

Haritza jaun eta jabe zen, beraz, beste arbola-mota guttien aldean, Gipuzkoa osoko basorik haundiena eta ederrena izanik Irisasikoa. Hogeitabat mila haritz horietatik lautatik hiru Irisasi mendian ziren, Orreagako fraileen jabegoan. Eta gainera, beste bost mila haritzak sakabanatuxeago zeuden. Andatza alde horretan etengabe aritzen ziren haritz-landatzen fraileen administratzailea eta beronen laguntzaile-morroiak.



Irisasi mendian Puela berri aurreko bidea

Eskura ezazu "Zubieta, mila urteko herria" liburua

Bazkideek

500
pezeta!

Noaia! Kultur Elkartearen egoitzan

Gainontzekoek

975
pezeta!

Laurok eta Lizardi liburudendetan



Honelako kontu xelege ugari
aurkituko dituzu

Joxe Ramon Zubimendiren
liburuan

(...) Usurbilgo eliza barruan apaizei etxeferoak bota zizkietenkoa ere gogoangarria da:

1680. urtean edo, Iruñeako gotzaiak kontu zorrotzak eskatu zizkion Usurbilgo erretoreari *porque la Noche del Nacimiento de Nuestro Señor, al tiempo que se cantan los maitines y se celebra la misa, algunos seglares entran en la iglesia a perturbar y tirar cohetes a los sacerdotes del coro- erdi lotan zeudenak esnatzeko ote?- y el día de San Juan Bautista, entran en la iglesia con hábito indecente, disfrazados y armados.*

(...) Zubietan ere ezaguna da apaizari etxeferoak botatzeko kontu hori; horixe egin baitzieten bertako apaiz Frantzisko Aranbururi, 1960. urte aldera, elizako dorretik plaza zaintzen egoten zela-ko neska-mutilak dantzan zebiltzanean. Debekatuta zeukan balseoan ibiltzea eta, dantza loturik egin ez zezan inorik, zelatan jarrita egoten omen zen kanpandorrean... harik eta Santiotako etxeferoak berari bota zizkieten arte. Orduz geroztikoa da Zubietako plazan, argi denean, dantza loturako libertatea. (...)

Oiarzuar hori izan zen Zubietako azkenengo apaiza. Gizon bitxia, eta hemendik kanpora ere oso ezaguna: "Zubietako apaiza" deitzen zioten denek.

Bixia da, baina beste ikuspegi batetik, behinola Zubietako festetara etorri zen apaiz baten jokaera: *"En el presente año (1731) acudió a las fiestas de la Comunidad de Zubieta, y quitándose el manto, se colocó una capa y gorro colocados, y empezó a torear, siendo corneado por el toro en la cara".*

*Zer gertatu zitzaion
jakin nahi duzula?*

Plater tiraketan maila haundia ematen duen usurbildarra



Juan Joxe Olanok tiro olinpikoan Euskadiko txapelketa irabazi zuen mini foso modalitatean pasa den martxoaren 26an. Apirilaren 23an, berriz, foso unibertsalean bigarren postuan gelditu zen. Orain, Avilan jokatu den Europako txapelketan edo Italian izango den Munduko txapelketan parte hartzeko aukerak ditu. Horretarako beste bost tiratzaileekin 100 plateretatik ahalik eta gehien jo beharko ditu.

Ez da mota honetako txapelketa irabazten duen lehen aldia. Duela bi urte ere irabazi zuen foso unibertsaleko Euskadiko txapelketa eta Portugalen izan zen Europakoa jokatzeko. Aurten ere bide beretik doa **Juan Joxe Olano**. Irunen jokatu zen mini-foso mailako Euskadiko txapelketan bera izan baitzen punteria onena izan zuena. "45 tiratzailek parte hartu genuen. 25 plateretako bi serie bota behar genituen, eta nik lehenengo plateretan huts egin banuen ere beste denetan ez nuen huts egin". 50 plateretatik 49 jo zituen usurbildarrak, eta bigarrenak berriz, 48.

Ez da mota honetako txapelketa irabazten duen lehen aldia. Duela bi urte ere irabazi zuen foso unibertsaleko Euskadiko txapelketa eta Portugalen izan zen Europakoa jokatzeko. Aurten ere bide beretik doa **Juan Joxe Olano**. Irunen jokatu zen mini-foso mailako Euskadiko txapelketan bera izan baitzen punteria onena izan zuena. "45 tiratzailek parte hartu genuen. 25 plateretako bi serie bota behar genituen, eta nik lehenengo plateretan huts egin banuen ere beste denetan ez nuen huts egin". 50 plateretatik 49 jo zituen usurbildarrak, eta bigarrenak berriz, 48.

"45 tiratzailek parte hartu genuen. 25 plateretako bi serie bota behar genituen, eta nik lehenengo plateretan huts egin banuen ere beste denetan ez nuen huts egin". 50 plateretatik 49 jo zituen usurbildarrak, eta bigarrenak berriz, 48.

Foso Unibertsalean Euskadiko bigarrena

Apirilaren 23an berriz Leioara joan zen Foso Unibertsaleko Euskadiko txapelketa jokatzera. 60 tiratzaileekin lehian bigarren postua eskuratzea

Aurreneko plateretan huts egin bazuen ere hurrengo 49ak hautsi zituen

lortu zuen. "100 plateretatik 95 jo nituen, baina irabazteko ez ziren nahikoak izan, beste batek 97 plater haustea lortu baitzuen". Lorpen honek Europako txapelketa edo Munduko txapelketa jokatzeko ateari ireki diezaizkioke.

ko txapelketa jokatzeko ateari ireki diezaizkioke.

Izan ere Leioan lehen sei postuetan gelditu zirenek 100 plater izango dituzte hausteko. "Euskadiko txapelketan lehen sei

Europa edo Munduko txapelketara joateko aukera izan dezake laister


postuetan gelditu ginenok, Federazioak esaten duen lekuan 100 plateretako txapelketatxo bat egingo dugu". Aurreneko hirurek Avilan jokatu den Europako txapelketara edo Italian izango den Munduko txapelketara joateko aukera izango dute. "Federazioak hiru lehenengoei txapelketa hoietara joateko diru kopuru jakin bat emango die. Saillkatuaz gero, eta bi txapelketetara joateko diru kopuru bera ematen badute Avilara joango nintzateke.

Juan Joxe Olanok bost urte daramatza goi mailako tiratzaileen artean. Urte horietan bigarren mailan egon da, baina ez lehen mailara igotzeko mailarik ez duelako, tartean beste faktore batzuk sartzen baitira. "Guk egiten ditugun tirada guztiak ordenadore batera doaz gure bat-

azbestekoak atera ahal izateko. Hirugarren mailatik bigarrena igotzeko, adibidez, 25 plateretatik 23 joaz gutxienez 8 tiraldi egin behar dira. Lehen mailara igotzeko, ordea, tirada nazionalak egin beharra daude. 125 plateretatik 123 joaz gutxienez bi tirada eskatzen dituzte, eta Euskal Herri mailan ez dago 100 plateretatik gorako tiradarik. Beraz, batzbesteko horiek lortzeko kanpora joan beharra dago eta dirua gure patrikatik jarri behar dugunez...".

ko txapelketa jokatzeko ateari ireki diezaizkioke.





Manu Mesa



- 44 urte
- Autobusetako gidaria
- Usurbilen bizinaiz

Informazioa eta eraginkortasun maila

Gai bati buruz informazio bat igorri nahi dugunean, informazioa ondo egina eta ondo garatua egotea saiatzen gara. Are gehiago, informazio hori kartel batean islatuta dagoenean.

Kartel bat egiten dugunean, gure helburua beti ahalik eta eragin handiena lortzea da eta jende kopuru zabalenera iristea. Era horretara, kartela ikusiko edota irakurriko duen pertsona hori jarrera kritiko bat izatera bultzatzen baitugu, era ohartuan edota oharkabean. Kontutan izanik, gainera, informazioaren teknologia egunetik egunera geroz eta garatua dagoela, eta bere eragiteko indarra eta boterea ere handiagoa dela. Horregaitik, garrantzitsua deritzot kartel bat eraginkorra izatea nahi badugu zenbait gauza kontuan hartzea; esate baterako, igorri nahi dugun informazioa ondo garatua egotea, noiz eta non aurkeztu behar den aldeaz aurretik aztertuta izatea.

Lehen esan bezala, beraz, ikusiko den informazio baten helburua, informazio horretatik edango duen sujetua sortzea da. Egia da, era berean, inoiz ez ditugula nahastu behar informazio publizitarioa eta

kausa politiko batean oinarrituta dagoen kartel bat. Baina bi informazio mota hauek badute amankomuneko gauza bat, hau da, jendearekiko duten harremana.

Egunero kaletik pasatzean ohartzen naiz badaudela zenbait kartel beren berezko lekua ez dutena errespetatzen edota gordetzen. Honek, noski, okerki eragiten du jendearengan eta sortzen duen eremu bisuala ere, nere ustetan bederen, negatiboa da. Are gehiago kartela taberna batean jarrita badago. Tabernak lagunekin elkartzeko tokiak dira. Askotan tabernak kartelez josita egoten dira eta ez diegu jaramonik egiten. Igorri nahi zaigun informazio edo mezu hori ez dugu behar bezala barneratzen, eta sarri, inkonzienteki bada ere, despiste orokor batean sartzen gara.

Inork ez du zalantzan jartzen kartel guztiei zor zaiela errespetua. Baina badaude batzuk bereziki errespetatu behar ditugunak; urte askotan zehar gure herriaren alde borrokatzen eta sufritzen ari direnak, alegia.

Nere mezua gaizki ez hartzea espero dut. Hau nere hausnarketa bat baino ez da, baina, bai, kontuan hartzekoa.

N•I

Ileapaindegia

MISTOA

Solarium, depilazioa, makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51

Kalkos kopisteria

- ☎ Fotokopiak
- ☎ Fotokopiak koloretan
- ☎ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ☎ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ☎ Planoen kopiak (AO arte)
- ☎ Ordenadoreko lanak
- ☎ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburuak)
- ☎ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

BORDATXO EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42



Lehiaketa



Nola izena du baserri honek?

Asmatzaileen artean
Tragoxkan bi pertsonentzat
afaria zozketatuko dugu

Aurreko alean ere galdera zail xamarra jarri genuelakoan gaude. Erantzun bat bakarra jaso genuen, eta zuzena gainera. Izan ere, Olloki baserria zen aurreko lehiaketan jarri genuen argazkiko baserria. **Ascimio Urio** dugu 88.aleko lehiaketaren irabazlea. Argiako lotean nahi duena hartzeko aukera izango du. Zorionak!

BAZKIDE TXARTEA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: _____
1. eta 2. abizenak: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Telefonoa: _____
Kontu korrontea: _____

490

bazkide ditu
Noaua!k. Zu ere
egin zaitez bazkide.
Zergatik ez? Eman
zure laguntza.

TABERNA-JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44



- G O Z O K I A K -

IZOZKIAK - FRESKAGARRIAK - FRUITU LEHORRAK

Zubiaurrenea, 3

Telf.: 696 851979

MAIATZAK 6 larunbata

- Club Agility Kai-Argiren eskutik **txakur erakutsien erakustaldia** herriko frontoian eguerdiko 12.00etan.

MAIATZAK 7 igandea

- **Andatza eguna**enez 11.00etan meza izango da bordaren aurrean. Goiz osoan txorizoa, haragi egozia eta salda trikitilarietz lagunduta.
- *Noaua!* elkarteak, tabernarien elkarteak eta udalak antolatuta **trikibertsoa** herriko frontoian. Arratsaldeko 18.00etan hasita **Aitor Mendiluze eta Unai Agirre** herriko trikitilarietz lagunduta.

MAIATZAK 8 astelehena

- Maiatzaren 8an udal pleno aretoan egingo den kultura batzordean **kultur etxe berriaren antolakuntza** aztertzen hasiko da. Herritar guztiei bertara azaltzeko gonbidapena egiten du kultura batzordeak.
- **Euskal prozesu demokratiakoaren** aldeko konzentrazioa. Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan hasita.

MAIATZAK 13 larunbata

- Aitzaga elkartearen seigarren urteurrena ospatzeko **pelota partiduak** herriko frontoian. Lau eta erdi barruan eta binaka arratsaldeko 18.00etan hasita:

1- Paulino/Ikutza

aurka

Mikel Orena/Enbortxo**2- Javi Santxo**

aurka

Haritz Urdanpileta**MAIATZAK 15 astelehena**

- San Isidro egunaenez, baserritarrez eguna, hainbat ekitaldi antolatu ditu goizean Nekazaritza Aholku Batzordeak.

MAIATZAK 18 osteguna

- Aitzaga elkartearen VI: urteurrena ospatzeko **Txetxenari buruzko hitzaldia** Askapenako Gabirel Ezkurraren eskutik. Aitzagako beheko aretoan.

MAIATZAK 20 larunbata

- Eguerdiko 11.00etan hasita

hitzaldia udaleko pleno aretoan. Gaia: "**Nekazal herentziaren lege berria**". Hizlaria: Alazne.

- **Euskal prozesu demokratiakoaren** aldeko konzentrazioa. Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan hasita.

OHARRAK

- ✍ **Galtzaraginan dagoen taberna saldu nahi nuke.** Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora (gauean deitu mesedez).
- ✍ Udarregi ikastola aldean **norbaitek giltza batzuk aurkitu baldin baditu** deitu telefono honetara mesedez: 649 322873
- ✍ Garaje bat alokatzen da Zubiarenean. Deitu telefono honetara: 943 36 58 63
- ✍ Kale nagusian **30 m² ko garaje itxia salgai.** Prezioa: 4 milioi. Telf.: 943 37 23 68
- ✍ Bigarren eskuko irratikasetak, telebistak...behar dira, ahal izanez gero modu onean. Telf. 943 37 18 80 (Ander)

XXIV. Santixabel bertso paper lehiaketa

1- Lehiaketa honetan parte hartzeko Usurbilgoa edo usurbildarra izan behar du.

2- Lanak, 2000ko ekainaren 22a baino lehen, honako helbide honetako buzoian utzi: *Usurbilgo udala. (XXIV. Bertsopaper lehiaketa) Joxe Martin enparantza. Usurbil 20170*

3- Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute.

4- Sariak honako hauek izango dira:

1- 30.000 pezeta eta txapela

2- 20.000 pezeta

3- 10.000 pezeta

5- Epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek behar duten kalitaterik ez badute, sariak eman gabe utzi daitezke.

6- Lanek gutxienez 8 bertso beharko dituzte eta gehienez 10.

7- Lanak egilea nor den adieraz dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. Lanarekin batera kartazal itxi batean parte-hartzailearen datu pertsonalak eman behar dira.

8- Epaimahaiaren erabakia 2000ko uztaillaren 1ean jakingo da jaietako bertso saioan.

“Plis plas txalo ta jolas” egitaraua herriko haurrentzat

Iaz irekitako bideari jarraitzen aurrera emanaz, aurten ere “Plis plas, txalo ta jolas” egitaraua martxan jarri dugu. Etxeko txikienak goxatu asmoz zuen auzoan edo ingurukoetan izango da zer ikusi eta zer entzuna. Maiatza eta ekaina bitartean antzerkia, magia, ipuinak, itzalak... denetarik ikusteko aukera zabala izango dute herriko haurrek. Aginagako, San Estebango eta Zubietako eskolak, Udarregi ikastola, Euskal Txokoak, Guraso Eskola, auzoetako jai batzordeak, Noaua! Kultur Elkarte eta udala izan dira aurten ere egitasmo honen eragileak. Hona hemen zuen eskura aurtengo egitaraua:



Maiatzaren 13an, arratsaldeko 17.00etan
Zubietako Eskola Txikian

ERREKAMARI ITZAL ANTZERKIA ETA
MERIENDA

Maiatzaren 20an, arratsaldeko 17.00etan
Aginagako zine aretoan

“ZUHAITZ GAINEKO TXABOLA” ANTZERKIA ETA
MERIENDA

Maiatzaren 27an, arratsaldeko 17.30etan
Kalezarko plazan

PANTXIKAREN ATLASA IPUIN KONTAKETA ETA
MERIENDA

Ekainaren 3an, arratsaldeko 17.00etan
Santueneako Eskola Txikian

TXAN MAGOA ETA MERIENDA

Ekainaren 18an, arratsaldeko 17.00etan
herriko frontoian amaiera ekitaldia

DETRAKA TALDEAREN “TRIKIMAILU EXPRESS” ETA
“TXIKI GLUB” IKUSKIZUNAK ETA TXOKOLATADA

Etxez etxe Noaua!ko bazkideak eginez



Oraindik ez dakizuela nor den? Baduzue, ba, ikasteko garaia. Aintzane Aizpurua gure etxeko bazkide eta kanpainarekin dabil duela hilabete inguru. Lasai, zuenera ere iritsiko da eta! Beraz, badakizue, **ZUEN ETXEKO ATEA IREKI AINTZANERI ETA NOAUA!ri.**

Egin zaitetz bazkide!



I.E.S. LASARTE- USURBIL B.H.I.

LASARTE ETA USURBILGO LURRALDEAN HEZIKETA PUBLIKOA, KALITATEZKOA ETA AURRERAKOIA

L.O.G.S.E. BATXILERGOAK


(A eta D ereduak)

Humanitateak eta Gizarte Zientziak

Natur eta Osasun Zientziak

Teknologia Batxilerra

- . zikloetarako
- . unibertsitatearako



HEZIKETA ZIKLOAK

Erdi mailakoak:

- . Administrazio kudeaketa
- . Merkataritza

Goi mailakoak

- . Administrazio eta Finantzak
- . Sistema informatikoak

Horniketa berri eta gaurkotua



- . Teknologia gelak
- . Natur zientzietako laborategiak
- . Fisika eta Kimikako laborategiak
- . Informatika gelak
- . Argazki laborategia
- . Gimnasioa
- . Eta abar.

Maiatzaren bigarren

astean bilera

izango da institutuan

Udaregiko ikasle

eta gurasoentzat.

Ondoren,

horniketa berria

eta gaurkotua ikusi

ahal izango dute.

ZIKLOAK:

Urrieta bidea z/g

TEL: 943 370611

FAXA: 943 363396

lasarte.zik@euskalnet.net

BATXILERGOA:

Buenos Aires aldea z/g

TEL: 943 372277- 372852

FAXA: 943 371678

i.lasarte@euskalnet.net.bezeroa.euskalnet.es

Aurrematrikula: Maiatzaren 2tik 15era, biak barne.

Matrikula egiteko egunak: Uztailaren 31tik 10era.

ZERBITZUAK

- . Autobus zerbitzua Zarautz eta Donostiatik
- . LANGAI
- . Orientabide zerbitzua
- . Heziketa ez arautua
- . Irteera kulturalak
- . Praktiak Europako Elkarteke enpresetan

ZORIONAK OIHANE !!!